


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

LEGAZPI 5



Egilea eta data: Eleuterio de Escoriaza; 1866.

Deskribapena

Eraikinak, jatorriz, behe oina eta lau goi oin ditu. Jatorrizko estalkipea zabaldu egin dute txapitula handien bitartez. Gaur egun eraikinak bi oin gehiago ditu. Jatorrizko proiektu komuna Legazpi 3rekin.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
 - Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
 - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta olana eta abarren ezarpena, Plan Berezi honetako Ordenantza Orokorretako babes maila horretarako ezarritako gai horiek erregulatzen dituzten irizpide orokorretara egokituko da.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: estalkipea.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: behe oineko harlanduzko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari loturikoak – fatxadaren eta behe oineko baoen konfigurazio bateratuarekin lotzen direnak barne–.